

BIGARREN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 maila

IDATZIZKO AZTERKETA

[A eredua]

- Idatzizko azterketak **bi proba** ditu: irakurmena eta idazmena.
- **2h 5 min.** dituzu azterketa egiteko.

	PROBEN EZAUGARRIAK	AURREIKUSITAKO DENBORA	PUNTUAZIOA (GEHIENEZ)	PUNTUAZIOA (GUTXIENEZ)
IRAKURMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Hiru ariketa dauzka. Hirurak egin behar dira. • Hiru irakurgai eta guztira 34 item. • Lehenengo eta bigarren ariketetan item bakoitzak 0,8 puntu balio du eta hirugarrenean 0,4 puntu. • Txarto erantzuteagatik ez da punturik kenduko. • Testuen luzera guztira: 1.500 hitz gehienez. 	50 min	20	10
IDAZMEN PROBA	<ul style="list-style-type: none"> • Bi ariketa ditu. Biak balio berekoak (15 puntu). Biak egin behar dira eta eskatutako hitz kopurua bete. Eskatutako hitz kopurua ez idazteagatik puntuak kenduko dira. 	75 min	30	15

- **Irakurri** atal bakoitzean datozen **argibideak** eta egizu bertan jartzen duena.
- Egin **idazmen-probako ariketak** horretarako eman zaizkizun **aparteko orrietan**.
- Azterketa-koaderno hau ez da jasoko, **zuzetzat da**.

1. ariketa

Ondoren testu bat daukazu. Irakurri eta erantzun galderai.

Aukeratu erantzuna. Bakarra da zuzena.

ERAIKINA, BIZITZAREN OINARRIAN

Segundo Oar-Artetaren esanetan, XX. mendearen erditik hona baserria errotik aldatu da. Etxe tradizionalak Bizkaian izan duen garrantziaz eta aspaldion izan duen bilakaeraz hitz egin zuen Manuel Peñarekin batera.

Peña eta Oar-Arteta Labayru Ikastegiko kideak dira, eta Etniker-taldeetan ari dira etnologia-lanetan: Peña Enkarterrin eta Oar-Arteta Busturialdean. «Peñak Karrantza inguruko baserriak ezagutzen ditu, eta nik Gernika ingurukoak. Desberdinak dira. Enkarterrin abeltzaintza izan da nagusi, eta horrek etxearen eraikuntzan eragin du. Beheko solairuan korta egoten da, lehenengoan etxebizitza eta goikoan ganbara. Nire inguruan, aldiz, laborantza izan da nagusi. Horregatik, korta txikiagoa izaten da, eta harekin batera sukaldea eta logela bat ere beheko solairuan egoten dira. Goikoan, gainerako logelak eta ganbara».

Etxea garrantzi handiko elementua da kultura guztietan. «Bizkaian, etxea ez da eraikin hutsa izan. Barruan eta inguruan egon diren espazioek ere osatu dute: korta, ganbara, labea... Eta abereak ere etxearen parte dira». Animaliek izan duten garrantziaren erakusle honako hau ekarri du gogora Oar-Artetak: «Etxeko jauna edo andrea hiltzen zenean, abereei ere jakinarazten zitzairen, eta baita berria nor izango zen ere». Etxeak hainbesteko garrantzia zuenez, pertsonen deiturak hasiera-hasieran etxearen izenak ziren. Bilboko Elizbarrutiaren Eliza Artxihoan dauden agiri zaharrenak 1501eko Zeanuriko bataio-agiriak dira. Haietan bi anaia agertzen dira, bakoitza deitura desberdin batekin. Izan ere, XVI. mendera arte ez ziren abizenak asmatu. Ordura arte, bizi ziren etxearen izena erabiltzen zuten.

Etxearen elementu nagusia lehenago aipatutako sua izan da: «Su gabeko etxea, gorputz odolgabea» esaldia jasota dago XVI. mendean. Su hitzetik dator sukaldea edo suetea. Suaren ondoan egiten zen bizimodu guztia. Etxeko leku epel bakarra zen. Han egiten zen jatekoa,

pertsonena eta animaliena. Han garbitzen zen arropa. Han ikasten zuten umeek. Han josten zen. Han aletzen ziren artoak. Han errezatzen zen arrosarioa.

Landa-inguruko baserriek eta hiribilduetako etxeek alde nabarmenak zituzten. Arrantzaleenak eta merkatarienak zeuden hiribilduetan. Eta lanbideak badu bere eragina eraikinean. Baserriak eguzkiari begira eraikitzen ziren, ekialdera edo hegoaldera zeukatela aurreko aldea. Iparraldera, berriz, horma hutsa izaten ziren. Hirietan, berriz, kalera begiratzen zuten etxeek. Ez zeukaten orientazio zehatz baten beharrik. Eta merkatarien etxeetan, gainera, etxea lotarako leku hutsa zen. Sukaldea, adibidez, dendaren edo tailerraren ondoan egoten zen, eguna han igarotzen zuelako familiak.

Etxe tradizionalaren gainbehera 1920ko hamarkadan hasitzen, eta 1970eko hamarkadatik hona erabatekoa izan da aldaketa. Lehenengo iraultza etxeetara argindarra eta ura iristeak eragin zuen. Besteak beste, sua indarra galtzen hasi zen. Baina baita jarduera ekonomikoak aldatu izanak ere. Peñak dioenez, «Gaur egun, baserrietan bizi den jende gutxi dabil laborantzan edo abeltzaintzan. Karrantzan, orain ez dituzte zortzi edo bederatzi behi lehen bezala. Edo ehun ipini dituzte edo denak kendu. Horregatik, korta asko txoko edo autoa gordetzeko leku bihurtu dira. Espazioek beste funtzio batzuk dituzte». Dena den, oraindik etxe tradizionalaren arrastoak badirela dio, «Noiz arte? Ezin jakin».

MARURI BILBAO, Ibai. Bizkaiko Hitza,
2014ko urriaren 3a. Egokitua.

1. ariketa. Aukeratu erantzuna

1. Zeri buruz hitz egingo dute Oar-Artetak eta Peñak?

- a) Etxe tradizionalak izan dituen aldaketez.
- b) XX. mendeko etxeez.
- c) Baserri barruko banaketaz.

2. Zer dio Oar-Artetak Enkarterriko eta Busturialdeko etxeei buruz?

- a) Abeltzainen etxeetako kortak nekazarienak baino handiagoak zirela.
- b) Batean zein bestean logela guztiak lehenengo solairuan egoten zirela.
- c) Ez zegoela desberdintasunik sukaldearen kokapenean.

3. Zer esaten da testuan animaliei buruz?

- a) Etxearen inguruko zenbait tokitan erakusten zirela.
- b) Etxearen parte izateaz gain, jabeen heriotzaren berri ere ematen zitzaiela.
- c) Etxeko espazio hutsetan egoten zirela.

4. Zer dio Oar-Artetak abizenez?

- a) Benetako abizenen hasiera XVI. mendean dagoela.
- b) Bataio-agirietan abizenaz batera etxearen izena agertzen dela.
- c) Zeanurin jaso zirela lehenengo abizen idatziak.

5. Zer garrantzi zuen suak?

- a) Etxe osoa berotzeko balio zuen.
- b) Pertsonak eta animaliak epeletan egoteko erabiltzen zen.
- c) Familia baten bizimodua bere inguruan egiten zen.

6. Zer ezaugarri zuten etxeek?

- a) Ogibidearen arabera, orientazio bat edo beste zuten.
- b) Baserriek orientazio jakin bat zuten.
- c) Iparraldeko horman ez zegoen leihorik baserrietan zein hiribilduetan.

7. Zer eboluzio izan du etxe tradizionalak?

- a) Pixkanaka-pixkanaka indarra hartzen joan da.
- b) 1920an suarekin batera desagertu zen.
- c) Lan-aldaketak eragina izan du etxe tradizionaletan.

8. Zer dio Peñak gaur egungo Karrantzari buruz?

- a) Abeltzainen artean behi kopuru txikiak jartzea dela ohikoena.
- b) Etxe tradizionala desagertu egin dela.
- c) Txokoek eta garajeek hartu dutela kortaren lekua.

2. ariketa

Ondorengo testuari zatiak falta zaizkio. Hurrengo orrian dituzu falta diren testu zatiak.

Sartu **testu zatia** dagokion **hutsunean**.

Markatu testuko hutsuneak (1, 2, 3...) betetzeko zein diren galdera egokienak (A, B, C...).

Testu zati bat sobera dago.

LAPONIAN ZEHAR

Sergio Gonzalez, Haitz Karakuel, Gontzal Martinez de la Heredia eta Lander Alvarez bizkaitarrak Laponian izan ziren, Finlandiaren kontrolpean dagoen zatian. Batzuk egonda zeuden lehendik Suediaren mendeko laponiarren lurraldeetan, baina orain Finlandiakoa ezagutzea zuten helburu. Ipar- eskiz egin zuten 13 etapa eta 299 kilometroko ibilaldia, Njuoggan herritik abiatuta.

Bidaia Loiuko aireportuan hasi zuten; Helsinkira iritsi eta han beste hegazkin bat hartu zuten Avnil izeneko herriraino, eta autobusez heldu ziren Njuogganera. **9** Etapa laburrena sei-zazpi kilometrokoa izan zuten; luzeena, 27 ingurukoa. Natura betean ibili ziren, kilometroak joan eta kilometroak etorri, ia inor ikusi gabe. Egun batean ibilaldi bera kontrako noranzkoan eta dokumental bat egiten ari zen bikote frantses batekin egin zuten topo; beste batean, arrantzan zebilen talde txekiar bat ere aurkitu zuten. **10** Gainerakoan, nahiko giro bakartian igaro omen zituzten egunak.

Atsedean hartu eta lo egiteko aterpe-sarea erabili zuten. **11** Neguan oso jende gutxi ibiltzen da eta hutsik egon ohi dira. Egur-berogailua eta ohatzeak edo literak dituzte, baina ez dago ez ur-korronterik, ez argindarririk. Halere, ondo moldatu ziren janaria prestatzeko; batez ere, arroza eta pasta afaritan. Gainerakoan, atsedendalditxoetan, fruitu lehorrak, fruta deshidratatua, tea, txokolatea, salda... Aterpe bakoitzaren ondoan egoten da egurtegia ere, udan pilatutako egurrez beteta; eta ondoko beste eraikin batean, komunak.

Bestalde, ez omen dago galtzeko arrisku handiegirik. Bideak nahiko ondo markatuta daude, eskiz ibiltzekoak zein elur-motorretarakoak, eta mapetan ere ondo ageri dira. Nahikoa izaten da bideko seinalei jarraitzea aterpera iristeko. **12** Gainera, larrialdiren bat gertatuz gero, aterpeetan irrati-telefonoa egoten da laguntza eskatu ahal izateko, baina ondo prestatuta joan ziren. Sakelakoek estaldura herrietatik hurbil baino ez dutenez, satelite-balizak eraman zituzten deiak egin ahal izateko. Zorionez, ez zuten erabili

beharririk izan. Animaliek ere ez dute arrisku handirik eragiten. Elur-oreinak daude, baina jada ez dira basatiak; horiek XIX. mendean desagertu ziren, ehiztariek akabatuta. **13** Neguan, laponiarrek herritik hurbiltzen dira motor-elurrez, ondo dauden begiratzerara. Eper zuri batzuk ere ikusi zituzten, elurretan bereizten oso zailak izan arren.

Arriskurik handiena tenperatura da, neguan batez beste -20 eta -30 gradu artekoa izaten baita; inoiz -40koa ere bai. Dena den, aurtengo tenperaturak askoz epelagoak izan dira. Ibilbidearen bigarren zatiko egun batzuetan, bat edo bi gradu positibo izan zituzten, eta egun batean boatera heldu eta euria egin zien. Ez zuten hori inondik inora espero eta arazoa sortu zitzaizen, Anaarjävri lakua zeharkatu behar zutelako. **14** Hortaz, ezin izan zuten eskiak jantzi, ez dutelako balio izotz gainean ibiltzeko. Beraz, lakuan zehar, erraketaz ibili behar izan zuten bi egunean. Ibilbidearen zati handi bat egiten da aintziratik, hain zuzen ere, neguan lakuak direlako oinez eta elur-motorrez egiteko biderik onenak. Izotz-geruza oso gogorra da eta lurra lau-laua. Elur-motorrek nahiko abiadura handia har dezakete inongo arriskurik gabe.

Hala ere, momentuz behintzat, ez dirudi laponiarrek kezka handiegia dutenik aldaketa klimatikoa dela eta, nolabait mesedegarritzat jotzen baitute. **15** Izan ere, elur-oreinen jabeek badituzte arazoak. Animaliek, neguan, elur azpian egoten diren likenak jaten dituzte. Elurrak poroak dituzenez, likenak usaindu eta erraz topatzen dituzte, zuloa eginda; baina tenperatura altuak zailago egin die elikadura, gaineko elur-geruza lehenengo urtu eta, gero, izoztu egiten delako. **16**

Lau lagunek Nordkaapera egindako txangoarekin amaitu zuten abentura, baina, Laponia oso handia denez, zeharkaldi gehiago egiteko asmoarekin itzuli omen dira denak. Groenlandia ere aipatu du baten batek.

2. ariketa. Aukeratu erantzuna

- A. Izotzuta egoten da normalean, eta izotz-geruza metro erdikoa izaten denez, ez dago urtzeko arriskurik; baina, gaineko elurra urtu egin zen eta berriro izotz zen.
- B. Handik abiatu ziren, motxila bizkarrean eta elurretako lera edo trineo bana atzetik arrastaka zutela, janaria, su-tokia, lozakua, kanpadenda eta abar eramateko.
- C. Hala ere, iparrorratza eta mapa eraman zituzten eta badaezpada GPS-a ere bai.
- D. Eta gero laponiarrek herrira itzultzen dira, askoz ere erosoago zaielako bertan bizi zuten.
- E. Ibilbidearen erdi aldean dagoen Ce'vetjau'rr herriaren inguruan, berriz, turistak ikusi zituzten elur-motorrez gozaten.
- F. Egurrez eta gasez hornituta daude, zabalik, erabili nahi dituenaren esku.
- G. Oraingo animaliak laponiarren etxe-abereak dira, eta mendian bizi dira, taldeka.
- H. Izotzak ez die uzten oreinei likenak usaintzen eta aurkitzen: ondorioz, pentsuz elikatu behar izaten dituzte.
- I. Azken batean, muturreko tenperaturak dituzte; beraz, neguan horrenbesteko hotzik egiten ez badu, bizimodu erosoagoa izaten dute, gehienek, behinik behin.

■ Idatzi zenbakiari dagokion letra ondoko laukietan:

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak								

Soberakoa	
-----------	--

3. ariketa

Hutsuneak bete. Testutik zenbait hitz ezabatu ditugu. Erantzun-orrian aukera ezazu zenbaki bakoitzari dagokion hitza.

egON LINE PROIEKTUA

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak nerabeak sentsibilizatzeko programa pilotu bat aplikatuko du bost ikastetxetan. Programaren helburua da gazteenei Internetek eskaintzen dituen aukerak eta sarearen erabilera desegokiak dakartzan arriskuak ikusaraztea.

Haurren eta Nerabeen Eskubideei buruzko Hitzarmenaren hogeita laugarren urteurrena dela eta, Juan Maria Aburto sailburuak egON LINE proiektua aurkeztu du Gasteizen. Proiektuaren **17** gazteei sare sozialen, bideo-jokoen eta telefono adimentsuen abantailak eta desabantailak **18** da, baita horien gainean sentsibilizatzea ere.

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak antolatutako haurren eskubideei buruzko **19** batean, Aburtok haurrak eta nerabeak Interneten aurrean **20** sare bat edukitzearen premia nabarmendu du eta, **21**, Jaurlaritzako beste sail batzuekin eta arloko eragile sozialekin **22** jardun behar dela adierazi du.

Internetek aukera mugagabeak eskaintzen ditu. Hori bai, arriskuak ager daitezke **23** erabiliz gero. Juan Maria Aburtoren iritziz, «Internet komunikabide eta informazio-bide bikaina da, baina arazoak sor ditzake informazio horren metodologia eta tratamendua ez badira egiten modu **24**».

Arrisku hori saihesteko, datozen bost hilabeteetan euskal sare publikoko bost ikastetxetako DBHko 1., 2. eta 3. mailako 200 ikasle inguruk eta beren **25** esperientzia pilotu honetan parte hartuko dute. Lehen fasean, nerabeek Interneten nabigatzeko dituzten **26** eta moduak ikertuko dituzte,

baita zer tresna erabiltzen duten gehien ere. Sareaz kanpoko eta sare barruko errealitatearen arteko antzekotasunak eta desberdintasunak ere **27** dira: lagunak, arau moralak, datu pertsonalak, eta abar.

Bigarren fasean, ikasleak teknologia berrien erabilera desegokiak sor ditzakeen arriskuei buruz sentsibilizatuko dira, eta sarean nabigatzeko **28** seguru bat sortuko da; esaterako, sareko indarkeria prebenitzen eta aurre egiten **29** zaie. «Sarea ez da ona edo txarra; abantailak eta desabantailak erabileraren arabera dira», adierazi du sailburuak. Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako arduradunen iritzian, ikastetxeak **30** elementuak dira ikaskuntza teknikoak eskuratzeko. **31**, ezinbestekoak dira ikasleek Internet modu egokian erabiliko dutela **32**.

Ikastetxe bakoitzak programa egiteko blog bat izango du. Azkenik, sareko **33** buruzko lan horrek guztiak Interneteko tresna berri bat ekarriko du, egON LINE plataforma edo web-gunea. Bertan, parte-hartzaileek lansaiioetan aukeratutako edukiak argitaratuko dituzte. Horrez gain, plataformak hainbat **34** ireki izango ditu (foroa, bideoak, eta abar) eta gainerako ikastetxeek bertako edukia hobetzeko aukera izango dute.

<Irekia.euskadi.net>, 2013ko azaroaren 20a.

3. ariketa. Aukeratu hutsuneak betetzeko hitz egokia

- 17.a) helburua
b) emaitza
c) zerrenda
d) aurkibidea

- 18.a) berritzea
b) sakontzea
c) ezagutaraztea
d) murriztea

- 19.a) jardunaldi
b) epaimahai
c) elkarketa
d) biltegi

- 20.a) adosteko
b) babesteko
c) gaintzeko
d) zuzentzeko

- 21.a) aldiz
b) hala ere
c) hau da
d) horretarako

- 22.a) batzarrean
b) elkartean
c) harreran
d) elkarlanean

- 23.a) jator
b) oker
c) eroso
d) bizkor

- 24.a) baketsuan
b) bihurrian
c) arduratsuan
d) axolagabeen

- 25.a) lehiakideek
b) hezitzaileek
c) zerbitzariak
d) erabiltzaileek

- 26.a) eskaerak
b) kopuruak
c) burutazioak
d) ohiturak

- 27.a) aztertuko
b) aginduko
c) moldatuko
d) zeharkatuko

- 28.a) pasarte
b) oreka
c) ikur
d) esparru

- 29.a) irudituko
b) irakatsiko
c) hausnartuko
d) jasoko

- 30.a) oinarrizko
b) legezko
c) pareko
d) ordezko

- 31.a) Esaterako
b) Ordea
c) Era berean
d) Bestela

- 32.a) baztertzeko
b) ukatzeko
c) ziurtatzeko
d) behartzeko

- 33.a) seinaleei
b) kokapenari
c) segurtasunari
d) salmentei

- 34.a) atal
b) gertaera
c) joera
d) froga

Oharrak

- Ondoren, **bi ariketa** dituzu. **Biak egin behar dituzu.**
- Oso kontuan hartu behar dituzu gaia eta eskatzen zaizun ariketa mota.
- Garbi idatzi eta saiatu letra argia egiten.
- Erabili boligrafoa idazteko.
- Zuzentzeko orduan, hauexek hartuko dira kontuan:
 - Eskatutako guztiari erantzun diozun.
 - Ideiak garbi adierazi dituzun.
 - Euskara nola erabili duzun: egoki, zuzen edota aberats.

**ZIRRIBORROAK EGITEKO LEKUA ONDORENGO ORRIETAN DAUKAZU.
EGIN ARIKETAK HORRETARAKO EMAN ZAIZKIZUN APARTEKO ORRIETAN.**

1. ariketa

Gaia kontuan hartu eta **eskutitza** idatzi behar duzu.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Zure zerbitzuko beharrianak direla eta, zuk aspaldi eskatuta zenuen opor-txanda aldatu egin dizute azken momentuan. Zuk bidaia bat zenuen hartuta eta ez zaude ados aldaketa horrekin.

Idatz iezaiozu eskutitza arduradunari eta azaldu zer gertatzen zaizun, aldaketak sortzen dizkizun eragozpenak zeintzuk diren eta zein konponbide proposatzen duzun. Saia zaitetz konbentzitzen.

2. ariketa

Gaia kontuan hartuta, iritzia eman behar duzu herriko aldizkarian, *Herritarren txokoa* sailean.

Gutxienez 125 hitz idatzi behar dituzu.

GAIA: Eusko Jaurlaritzak indarrean dagoen tabakoaren aurkako legea gogortu nahi du: elkarte gastronomiko eta futbol-zelai guztietan ere erretzea debekatuko duela irakurri duzu. Lehenengo debekuak ezarri zirenetik, denetarik ikusi duzu. Orain, neurri berrien aitzakia erabilita, iritzia ematera animatu zara.

Idatzi herriko aldizkarian zuk zer iritzi duzun zenbait lekutan erretzea debekatzeari buruz.

Zirriborroetarako lekua

Zirriborroetarako lekua

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA

- **1. ariketa:** aukeratu erantzuna.
- **Irakurgaia:** «Eraikina, bizitzaren oinarria»

1.	A	2.	A	3.	B
4.	A	5.	C	6.	B
7.	C	8.	C		

- **2. ariketa:** sartu testu zatia dagokion hutsunean.
- **Irakurgaia:** «Laponian zehar»

Hutsuneak	9	10	11	12	13	14	15	16
Testu zatiak	B	E	F	C	G	A	I	H

Soberakoa	D
-----------	---

- **3. ariketa:** hutsuneak bete.
- **Irakurgaia:** «egONLINE proiektua»

17.	A	18.	C	19.	A
20.	B	21.	D	22.	D
23.	B	24.	C	25.	B
26.	D	27.	A	28.	D
29.	B	30.	A	31.	C
32.	C	33.	C	34.	A

a.